

## Antisorgailuak, klima-larrialdiari aurre egiteko

Azken aldian, munduko gainpopulazioak planetan eragiten duen arazo larria jartzen ari dira mahai-gainean zientzialariak. [MJ Sexual & Reproductive Health aldizkarian](#), klima-larrialdiari aurre egiteko estrategiak garatzen direnean, antisorgailuen erabilera aintzat har dadila eskatu dute.


Datu esanguratsua eman dute: urtero, desio ez diren 99 milioi haurdunaldi izaten da munduan; haurdunaldi guztien % 44. Orain arte, energia-iturri berriztagarriak erabiltzea eta eraginkortasun energetikoa handitzea izan dira klima-larrialdiari aurre egiteko estrategiak nagusiak, baina antisorgailuak denon eskura jartzea ere gakoa izango dela adierazi dute.



ARG.: Pixabay.

*The Lancet* aldizkariak ere jarri du begirada antisorgailuetan. Aldizkariaren iritziz, munduan 200 milioi emakume inguruk erabili nahi dituzte antisorgailuak, baina ezin dituzte eskuratu, izan arazo ekonomikoengatik, ideologikoengatik zein erlijiosoengatik. Hortaz, sinesmenen gainetik, familia-plangintza estrategia gisa har dadin aldarrikatu zuen. Datuek diote familia-plangintzan gastatzen diren 7 dolarreko, tona bat baino gehiago murriztu dezakegula CO<sub>2</sub>-aren igorpena. ●

## Kostaldearen zaurgarritasuna iruditan



ARG.: Climate Central.

Munduko kostaldea uste zena baino hiru aldiz zaurgarriagoa da, klima-larrialdiaren ondorioz itsas mailak izan dezakeen igoerari eta kostako uholdeei erreparatzen badiegu. Ondorio horiek atera ditu [Nature Communications aldizkarian argitaratutako ikerketa batek](#). Sare neuronaletan oinarritutako eredu bat sortu dute kalkulatzeko munduko populazioaren zenbatekoari eragingo dion zuzenean itsas mailaren igoerak. [Erreminta horrek aukera eman du bisualizatzeko](#) luzaroan [zientzialariek iragarri duten itsas mailaren igoera hori](#).

Kalkulu berriaren arabera, 2100 urterako 190 milioi pertsona bizi diren lurra egongo dira itsas mailaren azpitik. Gas-igorpeneak handitzen jarraituko balute, aldiz, 630 milioi pertsonaren bizilekuak geratuko lirake ur-azpian. Epe laburragoko aurreikuspenak ere eman dituzte: 2050rako 340 milioi pertsonaren bizilekuak gera daitezke ur-azpian. Kostaldean bizi den populazioaren % 10ak bizi tokiz aldatu beharko du. Galerarik larriena Asian gertatuko da, baina ereduak argi erakutsi du arazoa mundu osoan pairatuko dugula. ●